

TIPI TAPA

Susanna Martinen komikia Desazkunde eta Bizitze Ona Sarearentzat





TIPI-TAPA

Susanna Martinen komikia Desazkunde eta Bizitze Ona Sarearentzat

Egungo garapen-ereduaren aurrean alternatibak bilatu behar direla sentitzen dugun hainbat kolektiboetako erakunde (gizarte-mugimenduak, GGKEak, sareak edota sindikatuak) osaturiko taldea gara. Hala, modu jasangarriagoan bizitzeko alternatiba erreal batzuk erakusten dituen komiki hau prestatu dugu.

Gure lanari eta **Tipi-Tapa Bagoaz! Bizimodu jasangarrietarantz** kanpainari buruz gehiago jakin edo gure manifestua sinatu nahi baduzu, sartu hemen: www.tipitapabagoaz.info



Nortzuk gara:

Bizilur, Ehne Bizkaia, Ekologistak Martxan, Goiener, Mugarik Gabeko Ingeniaritza, Emaús Gizarte Fundazioa, Setem Hego Haizea, Desazkundea (bereziki Desazkundeko Feminismoak taldea), ESK Sindikatua, Mugarik Gabeko Ekonomialariak, REAS Euskadi (Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea), Euskadiko GGKEen koordinakundea, Saretuz (Kontsumo arduratsu, kontziente eta eraldatzailearen aldeko Donostiako Sarea), Zentzuz Kontsumitu (Vitoria-Gasteizeko Kontsumo kontziente eta arduratsuaren aldeko Sarea), Alianza Política Sector de Mujeres, Centro de Mujeres Xochilt Acatl eta Mugarik Gabe.

Koordinatzailea:



Ilustrazioak eta maketazioa: Susanna Martín

Testuak: Susanna Martín eta Desazkundea eta Bizitze Ona Sarea

Itzulpena: June Díaz Bragado eta Aiaraldea Komunikazioa Zerbitzuak, SL.

2017ko maitaza

Babeslea:



Eskerrak eman anhi dizkiogu material honen eraikuntza kolektiboan parte hartu duten pertsona eta elkarte guzietei.



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-ND 4.0)
Lizentzia osoa: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES

Komikirako SARRERA

Desazkundera eta Bizitze Ona Sarearen ibilbide kolektiboa

Hedatzen ari den ekonomia batek ematen dituen ondasunek eta zerbitzuek gizakien ongizatea hobetzen laguntzen dute, baina neurri batera arte. Hortik aurrera, hazkundearekin lotutako gizarte- eta ingurumen-kostuek duten eragina hain da handia, ezen ongizate-maila murrizten baita (...), gizakien ongizateari laguntzeari utzi eta kaltegarri bihurtzen da. Hori dela eta, ezinbestekoa da garapen-eredua aldatzea: ekoizteko, kontsumitzeko, lan egiteko, bizitzeko... beste modu bat.

Jorge Riechman

BADIRA HAMARKADA batzuk gure bizimodua zalantzan jartzen dugula eta gure gehiegizko kontsumoan aldaketak egiteko beharra sentitzen dugula, planetako baliabideak amaitu ez daitezen. Aldaketa guztiek osagarri pertsonal bat behar dute, osagarri sozialaz eta politikoaz harago. Beharrezkoa da erantzukizun unibertsala dugula sentitzea, orainaldian eta etorkizunean erantzukizuna dugula pentsatzea, interdependentzia globala dela eta. Gure bizimoduak eragin zuzena du beste pertsona batzuen bizi-baldintzetan, eta hori ulertu dugulako planteatu dugu proiektu politiko gisa behera egingo genukeela.

Gizarte iraunkor, bidezko eta ekitatiboak eraikitzeke, beharrezkotzat jotzen dugu erabat desberdina den eta bizitzaren eta planetaren zaintza erdigunean jartzen duen beste eredu bateranzko trantsizio bat egitea. Horretarako, baina, elkarrekin lan egin behar dugu, eta gure diskurtsoak, borrokak eta mugimenduak artikulatu. Hori dela eta, 2010ean, hainbat eremutako zenbait kolektibo, gizarte-mugimendu, GGKE, sare eta sindikatu elkarrekin lanean hasi ginen. Eredu sozial, politiko eta ekonomikoa ikuspegi feminista batean oinarrituz aldatzea genuen denok helburu. Horrela sortu zen Desazkundera eta Bizitze Ona Sarea, honako hauek osatua: Ekologistak Martxan, Desazkundera, Mugarik gabeko Ekonomialariak, Bizilur, Euskadiko GGKEen Koordinakundera, ESK sindikatua, Euskadiko Mugarik Gabeko Ingeniaritza, REAS Euskadi eta Mugarik Gabe.

2011z geroztik, topaketak antolatu ditugu urtero. Hala, esperientziak eta alternatiba praktikoak bildu ditugu eta abian jarri, bizitzaren eta planetaren zaintza erdigunean kokatuko duten gizarte-antolakuntzako eredu berriak eraikitze aldera. Topaketa horietan, zenbait alderdi lantzen ditugu bereziki: lan-kontzeptuaren inguruko planteamendua, enpleguaren eta ekologiaren arteko lotura eta bizi-eredu alternatiboak, feministak eta ingurumenaren aldetik iraunkorrak. Bizitza erdigunean ezarriko duen eredu bat lortzeko, kontuan hartu behar ditugu honako faktore hauek: planetak muga fisikoak ditu, zeintzuek ekonomiaren eremu materiala txikiagotzen baitute nahitaez; interdependentzia onartu behar dugu, gizarte osoak bere gain har dezan ongizatearen eta erreproduktio sozialaren

erantzukizuna; aberastasuna banatu behar da baliabide mugatuak dituen planeta honetan; eta premiazko neurriak hartu behar dira.

Azken urte eta erdi honetan, sare honek, Goiener, Saretuz, Zentuz Kontsumitu, Emaús, Ehne Bizkaia, Sector de Mujeres, Xochilt Acalt eta Setem Hego Haizea kolektiboekin batera, "Euskal Herritik kolektibotasunean eraikiz: bizi estilo jasangarrietan oinarritutako gizarte justu eta bidezko baten eraikuntzarako analisi eta aldarrikapenak" argitalpena osatu du, eta Desazkundearen eta Bizitze Onaren V. Topaketetan aurkeztu zuen, ekainaren 5ean Bilbon. Lanean, hain zuzen ere, aurrerago zehaztuko ditugun lau ardatz nagusiren inguruko aldarrikapenak eta gogoetak proposatzen ditugu.

Gaur egun krisian dagoen eta lehengoratu nahi den ereduak oinarri heteropatriarkalak, antropozentrikoak eta kapitalistak ditu. Oinarriok arriskuan jartzen dituzte bizitzari bide ematen dioten oreka ekologikoak, eta gizadi gisa eusten diguten interdependentzia-harremanak oztopatzen dituzte. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da lehengoratu nahi ditugun egoeren kausak eta ondorioak sakonago aztertuko dituzten eta elkartasunezko kontzientzia kritikoa sustatuko duten hezkuntza-prozesuak bultzatzea.

Beste eredu batzuk lortzeko, herritarrek jabetu behar dute eraldaketarako subjektu aktibo direla. Ildo horretatik, garrantzitsua da besteekin batera parte hartzea, antolatzea eta mobilizatzea politika publikoak alda daitezela exijitzeko, eta garrantzitsua da, halaber, gure eguneroko bizimodua ere iraultzailea dela ulertzea. Horregatik, egindako lan kolektiboan hala erakundeentzako proposamenak zein aldarrikapenak nola lau ardatz estrategikoetarako alternatiba indibidualak eta kolektiboak bildu ditugu. Espero dugu lana lagungarria izatea eragin politiko kolektiboko agenda bat sortzeko eta gure eguneroko bizimodua aldatzeko alternatibak abian jartzeko.

Aipatu argitalpenean komiki formatuan jasotzen ditugun hausnarketek ez dute jarduteko esparru itxia ezarri nahi. Eztabaida ugari daude kalean, bai eta urratzeko bide asko ere. Eta hor gabilta, bizimodu jasangarriak gure ustez zer diren eta hori lortzeko zein baldintza bete behar diren demokratikoki definitzeko erronkaren aurrean. Bide horretan gaude, etorkizunari hainbat angelutatik, ikuspegi analitiko desberdinetatik, latitude hauetatik eta besteetatik begira, egoerak planteatzen duen erronka konplexua gure gain hartuz, eta aurre egiteko behar adina energiarekin.

Susanna Martínekin batera poz eta ilusio handiz egin dugun komiki hau gogoko izatea espero dugu.

Desazkundera eta Bizitze Ona Sarea

Argitalpenak aldaketa indibidual eta kolektiborako proposatzen dituen zenbait alternatiba

ELIKADURA-BURUJABETZA.

Gure eguneroko kontsumoa ere ekintza politiko bat da. Horregatik, hainbat merkaturatze-saretan parte har dezakegu, pertsonalki, familian nahiz kolektiboki; esaterako, kontsumo-taldeetan, ekoizleen eta kontsumitzaileen kooperatiba mistoetan, ekonomatuetan eta ekoizpen txikiak eta eredu honetakoak (edo nekazaritza-elikagaien edo autokontsumoaren ereduak) babesten dituzten banaketa-enpresetan.

EREDU ENERGETIKOA.

Gure etxebizitzetan, ahal den neurrian isolamendua hobetzea (leihu bikoitzak, fatxada berritzea, eta abar), pertsonak ixtea edo, neguan, termostatoa pare bat gradu jaitea, etengailudun konexio-blokeak jartzea eta argiak behar ez direnean itzaltzea. Eguneroko bizitzan, autoa partekatzea, bizikletaz edo oinez ibiltzea eta aisialdia gure inguruan igarotzea. Keinu txiki bakoitzak energia-kontsumoa gutxitzen laguntzen du.

EKONOMIAREN BIRLOKALIZAZIOA.

Kontsumitzean, murriztu, berrerabili eta birziklatu. Babestu finantza etikoak, merkatu soziala, merkaturatze-zirkuitu laburrak, energia-kooperatibak... Enplegua eta bizimodu duinerako eskubidea bereizi. Alternatibak eraikitzeak, zabaltzeak eta ugaritzeak sistema postkapitalista solidarioagoa, ekitatiboagoa eta iraunkorragoa lortzen lagunduko digu.

PERTSONEN ZAINZA.

Gizonen eta emakumeen artean modu ekitatiboan banatu bizitzaren iraunkortasunerako behar diren zaintza-lan guztiak. Zaintza-sistema publiko eta unibertsala guzti-guztiek baldintzarik gabe eskuratu ahal dutela bermatu. Egunero, zaintzak kolektiboki egiten lagunduko diguten alternatibak sustatu: bizikidetzaren eredu alternatiboak (cohousing delakoa eta egoitzak), hazkuntzarako gurasoen sarea, belaunaldi arteko zaintza-sistema, trukeko edo debaldeko guneak eta hezkuntza-esperientzia alternatibo publikoak.

Informazio gehiago: www.tipitapabagoaz.info

Oihana ezagutu nuenean esan zidan nagusitzean baserrian biziko ginela, eta baratzea zein oiloak izango genituela.



Nik, adarra joz, orduan ahuntza opariturko niola esaten nion, itzelak baitira: esneaz gain, zabor bilketa zerbitzurik onena ematen dute, sekula ikusi gabea. "Bombayko txaboletan bezala", aipatzen nion.



Oihana beti haserretzen zen konparazio horrekin.

Alerta laranja gaur Shangain...



Airea da kezka Madrilen...



Garoñako Zentral Nuklearra berriro irekitzearen kontrako manifestazioek aurrera jarraitzen dute...

Udalak ezarritako trafiko murrizketak kritikatu dituzte...

Eta honekin, 25 dira urtea hasi zenetik indarkeria matxistak eraildako emakumeak...



Europak eta Txinak akordio berria sinatu dute; % 200ean egingo die mesede multinazionaleri eta Munduko Bankuari...



Arrainen ehunka gorpu azaldu dira hondartzan gaur goizean, Galiziako ...

Matxinadek jarraitzen dute Parisko "banlieue"n...

Gaur da urtebete Berta Caceres Honduraseko lider komunitarioa erail zutela...

AI AMAI ITZAL DEZAGUN TELEBISTAI

ZEIN TRISTEA DEN GUZTIA!





IKUSTEN DUZU MOTEL, PAUSO ERRALDOIETAN GABILTZA PLANETA AKABATZEN.

NAZIOEN AKORDIO ETA GAILUR ASKO -EDO DENA DELAKO HORIEK- OZONO GERUZAREN ZULOAREN DIAMETROAZ EZTABAIDATZEKO...

...BAINA DENAK DIRA TXEPELKERIA HUTSAK. IRUZUR HANDI BAT.



MULTINAZIONALEK NAHI BESTE DIRU DUTE KUTSADURAGATIK EZARRITAKO ISUNAK ORDAINITZEKO, UNIBERTSOKO DIRU GUZTIA. ENERGIA XAHUTZEN DUTE, KUTSATU ETA PERTSONAK ESPLOTATU. ETA GAINERA, DEBALDE!

ARRAZOIAI ARAZOA KONTSUMISMO-AREN HAZKUNDE MUGAGABEA DA.



KONTSUMITZEN DUGUNAREN KONTZIENTZIA IZAN BEHARKO GENUKE, ETA BERAU MURRIZTU, NESKAKI

JENDARTEAK KONTZIENTZIA HARTUKO BALU ETA ARDURATSUA BALITZ BERE...



DESAZKUNDEZALE!!!

ADOS.

KAR
KAR
KAR
KAR

KAR
KAR



Oihana lanik gabe geratu berri zegoen, eta langabeziagatik oso gutxi lobratzen zuen, azkeneko lana zaborra baino okerragoa izan baitzen. Eta nil autonomo gisa dudan soldata ezegonkorrarekin, bizirauteko nahiloa komeria!

KAR
KAR
KAR

Oihanak duela bi egun proposatu zidan Londredera lanera joateko aukera. Bertan duen lagun batek iradoki zion unibertsitatean saialkera egiteko.





BAI, SEKULAKOA DA.
GOIZERO EROSTEN
DITUZTE HERRIAN
JAKI FRESKOAK.

ADIBIDEZ, ATZO,
BAKAILAOA IZAN ZUTEN;
ETA ALDAMENEAN
EROSI ZUTEN, HEMEN
BERTAN DAGOEN FAMILIA
ARRANTZALEAREN
ARRAINDEGIAN.

KLINK
KLINK
KLINK

ZURRUT



ETA ESKOLAREN
BEHARRAK ASETZEKO
ORTU TXIKI BAT
DUTE.

PLAZER HUTSA DA JAKITEA
ZURE ALABAK EGUNERO BERTAKO
ELIKAGAI OSASUNSUAK JATEN
DITUELA, KAR KAR.

ZURRUT



BENETANI NABARITZEN
DAI PILA BATI

GU KONTSUMO TALDE
BATEAN GAUDE, ETA
ASTERO JASOTZEN
DUGU GARAIKO
BARAZKIEN SASKIA.



PUREA JATEN DUGUNEAN,
ADIBIDEZ, GORPUTZA
ELIKAGAIZ BETETZEN ZAIDALA
NABARITZEN DUT...

BISS-BISS
BISSSS

BISS
BIS-BISS...



ETA KONTUEK
EMATEN DUTE?

EZ AL DA
GARESTIAGOA?

IZAN ERE, NIRETZAT
BAKARRIK SASKI BAT
ASTERO... NAGI APUR
BAT EMATEN DIT.



*Baserrikoa, landa eremuko ohiko euskal etxekoa.



Beti egon izan naiz oso gustura lagunarte honetan. Nire amonak esango lukeen bezala, jende ona eta sana da. Nire familiaren parekoa da, hautatutako familia.



Badalite Oihanak eta biok guraso izan nahi dugula, eta gure asmoa eurek ere hazkuntzaren parte garrantzitsu izatea da, partekatua izatea nahi dugu.



... BAINA
BELDURRA EMATEN
DIGU GURE
EZEGONKORTASUN
EKONOMIKOAK.

NOLA MANTENDUKO
DUGU HAURRA?




HORI TONTAKERIA
BAT DA, UMEARENTZAKO
ARROPA ETA TRASTEAK
UTZI AHAL DIZKIZUEGU
HAURRAK DITUGUN
LAGUNOK; ETA PIXOIHALAK,
GARBI DATEZKEENAK
ERE BADIRA...

BAINA GARBITZEAZ
NAZKATUKO ZARETEI
MUNSTRO HORIEK EGITEN
DUTEN TXIZA ETA
KAKA GUZTIAREKINI

GARBITZEKO XAHUTZEN
DUZUEN UR GUZTIA
KONPENSATUKO DUZUE
PIXOIHAL EKOLOGIKOEKIN.

BA BAI,
ETA GERO, DENEN
ARTEAN ZAINDUKO
DUGU MUNSTRO
TXIZATIA.







Gure topaketetatik asko gustatzen zaidan gauzetako bat da beti ateratzen direla ideiak elkarriketatetik.



Ez dira lexeak, nahiz eta batzuk besteekin hustu barrenak; ezta aurpegiatze negatiboak edo toxikoak ere!



Ondoren, ez zara geratzen hutsune sentsazio horrekin, "tira, jada konpondu dugu mundua, orain gure errutinarekin jarraitzera".



Oihanak baratzeak barazkiak jaten dituenen diobenaren antzekoa da; nire lagunekin egoteak elikatzen nau, elkar elikatzen dugu.



Oso triste eta nelatuta gogoratzen dut Odei, lehen urtean anaia eta bera saiatu baitziren berataz arduratzen.



Beti da konplexuagoa eta nekezagoa adinelo pertsona edo eri bat zaintzea une batez arduratzea baino. Herrialde honetan behintzat.*



*Orain auzoan aintzinako Kultura Etxea berritzeko eskatzen ari dira, edadetu guztientzako egoitza publiko eta doako gehiago egon daitezen.

Gogoan dut Maddirelein izandako solasaldia, lanean topo egin genuen egun batekoa...

GATAZKATSUA EGITEN ARI ZAIGU ODEIREN AITA ZAINTEKO NORBAIT KONTRATATU BEHARRA.

EZIN DUGU ERIZAIN BAT ORDAINDU, ETA LANKIDE BATEK AIPATU DIT EMAKUME PERUAR BATEK PREZIO ERDIAN EGITEN DUELA LAN.

AI, ENE, BAINA HORI ESPLOTAZIOA DA.

BEHINTZAT PAPERAK ESKURATZEN LAGUNDUKO BAZENUTE...



TIPI?

UF. IA.

BAINA EMAKUME HORRI LANA EMANGO ZENIOKETE.



TAPAI

UFA, BAI ZERA... HORI AMESKERIA DAI

AURREKOAN EMAKUME BATI BURUZKO ARTIKULUA IRAKURRI NUJEN; NIKARAGUATIK ETORRIA ZEN, ETA GETXOKO ETXE BATEAN ZEBILEN ZERBITZARI...

450€ ORDAINTZEN ZIZKIOTEN HILERO FAMILIAKO AMONA ZAINTEAGATIK; ETA BIDE BATEZ, HAN ZEGOENEZ, ETXEA GARBITZEAGATIK. TRUKEAN JANA ETA LOA ESKAINTZEN ZIOTEN ETXEAN BERTAN.

AI, AMA.



LATZAI EZTA? ETA ORDU GUTXI BATZUK BAINO EZ ZITUEN LIBRE, IGANDEETANI



TIPI TAPAI



Bilbora doan hurrengo trenak... <JRRR>

AIZU, POLIT HORI,
ETORRI ETXERA
AFALTZERA, ETA
BARAZKI GOZOAK
JANGO DITUZUI



<JRRKI>
Hurrengo
getokia: Deustu!

MUAK

LANERA BIZIKLETAN
JOATEAGATIK
ORDAINDUKO DIDAN
ENPRESA BAT BILATUKO
DUT HURRENGOAN...



EZIN DUT... GOIZ
JAIKI BEHAR NAIZ BIHAR,
ASTELEHENETAN GASTEIZERA
JOAN BEHAR DUT LANERA,
ETA AURRENEKO AUTOBUSA
HARTU BEHAR DUT.

NESKAK,
OSO ESTU AL
ZABILTZATE DIRUZ?

TIRA, PIXKA
BAT....



LONDRESERA
JOATEA
PENTSATZEN
ARI NAIZ.

KAR, KAR, KARI
EZ DAKIZU
INGELESIK ETA!

AIZU,
BADAKIT
ZERBAITI

"A LITEL".



GAIZTO
HALAKOAI!



O!

BADAKIZUE ZER
DEN COHOUSINGA?

ETXEBITZA
KOLABORATIBOAK,
EZ? ZER BA?



HORI DAI
ETXEBITZA ERABILI ETA
ESKURATZEKO MODU
ALTERNATIBO BAT DA.

LAGUN ASKO DIRA ERAIKIN EDO
BASERRI BERAREN JABEAK, ETA
ERABAKIAK KOMUNEAN HARTZEN
DITUZTE. ESPAZIORIK HANDIENA
DENENA DA, ETA PRIBATUA ALDIZ
TXIKIENA.



BADUT NI BEZALAKO
LAGUN INGENIARI BAT, MOTA
HORRETAKO PROIEKTU BATEKIN
HASI DENA ARABAKO
HERRIXKA BATEAN.



*Win-win (irabazi-irabazi), ingelesetik dator. Joko hau jokalaria guztientzat da onuragarria, parte-hartzaile guztiek nola edo hala etekina atera dezaten diseinatu baita.



INES SEKO EMOZIONATU ZEN OSO ARINI!

KAR KAR KAR

IKUSTEN DUZU!



KLIK

KAIXO, KATUTXOI!

MIAUUUU



AIZU, BAINA BEGIRA GENEZAKE EA BIRPOPULATZE PREMIA DUEN HERRIXKARIK BADEN, AKASO KOLEKTIBOREN BATEN PLANETAN EGONGO DA, ETA BESTELA, HIRIKO KOOPERATIBAREN BATEKIN.

MAU

MAU

MAU



FIARE BANKU ETIKOTIK ERE PASA GAITEZKE, PROIEKTU KOLEKTIBOETARAKO DIRUA MAILEGUAN UZTEN BAITUTE.

BRUS BRUS

BA BAI, BILLADITZAGU-NAGTEGNATIBAK.



Esan dizuedan bezala, Oihana ezagutu nuenean esan zidan naqusitzean baserri batean biziko ginela, baratzea, oiloak, eta nilk oparitutako ahuntz bat izango genituela.

AMAIERA

SUSANNA MARTIN 2017